

Asier Gomez, igerilaria:

“Tximeleta-estiloa da nire espezialitatea”

Asier Gomezek 15 urte besterik ez ditu, baina bidea egiten ari de igeriketan. Lehen besakadak Ermuan eman ondoren, Eibarko taldean dabil orain, eta astero ia egunero joaten da alboko herrira entrenatzera. Esan daiteke uretan ematen duela denborarik gehiena, hor sentitzen baita eroso. Denboraldi honetan hainbat erronka ditu aurretik, baina momentuz afizio moduan hartzen du igeriketa.

- **Nola hasi zinen igeriketa-
ren munduan? Noiz?**

Txikitan hasi nintzen, 3 urterekin. Hasiera batean Ermuan egiten nuen igeri, baina orain dela hiru urte Eibarko taldearekin hasi nintzen. Futbolean ere egiten nuen ordura arte, baina goiko mailan jokatu ezin nuenez, igeriketa probatu nahi nuen galdetu zidaten. Urtebetez probatu nuen eta asko gustatu zitzaidan.

- **Zergatik joan zinen Eibarko taldera?**

Bi aukera nituen: Eibarren egitea edo Durangon. Orduan, Eibarrera joatea erabaki nuen.

- **Ez zeneukan Ermuan jarraitzeko aukerarik?**

Kontua da Ermuan ez dagoela ni lehiatzen naizen mailan aritzen den talderik. Beraz,

beste toki batean jarraitzera behartuta negoen.

- **Zein txapelketatan lehiatzen zara?**


Infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan lehiatzen naiz, baina pixkanaka-pixkanaka Euskadiko Txapelketan ibiltzeko lanean ari naiz, saiatzen behintzat. Nire erritmora noa.

- **Igeriketa estilo guztietan aritzen zara edo estiloren batean espezializatuta zaude?**

Estilo guztiak egiten ditut, baina tximeleta-estiloa da nire espezialitatea. Denak probatu ondoren esan dezaket ondoen aritzen naizen estiloa dela.

- **Kanpotik begira, behintzat, estilo teknikoena dela ematen du.**

Besoak gorantz igo behar dira eta hankekin ere gorantz



eman behar da, biak batera.

- **Nolakoak izaten dira zure entrenamenduak? Zenbat aldiz entrenatzen duzu astean?**

Astean sei aldiz entrenatzen dut, astelehenetik larunbatera. Normalean bi ordu edo bi ordu eta erdiko entrenamenduak izaten dira; eta astelehen eta asteazkenetan entrenamendu fisikoak ere egiten ditugu, hau da, gimnasioko lanak, eta egun horietan hiru ordu eta laurdeneko entrenamenduak izaten dira.

- **Lehiaketak noiz izaten dira?**

Hilean behin lehiatzen gara. Normalean Gipuzkoan izaten dira eta entrenatzaileak aukeran ematen digun non lehiatu eta non ez.

- **Zer moduz doa aurtengo denboraldia?**

Orain dela pare bat aste Gipuzkoako Txapelketa izan genuen Tolosan eta ahal nuen guztia jaitsi nuen nire denbora. Taldeko batzuek dominak irabazi zituzten, nik ez, baina orain dela urtebete irabazi nituen batzuk (Tolosan 100 metro tximeletan urrea lortu nuen, nire adineko bakarra izan nintzelako lehian; eta Legazpin 100 metro estiloetan).

- **Zeintzuk dira zure helburuak aurtengo denboraldiari begira?**

Nire markak ahal dudan guztia jaitea espero dut eta Euskadiko Txapelketan parte hartzeko eskatzen duten marketatik gertu geratzea. Etorkizunera begira, Euskadiko Txapelketan zerbait irabaztea gustatuko litzaidake.

Ekhi Velar



**OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak

Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda
berria

VI Centenario 5 • ERMUA
943 172 412

ileapaindegia

Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474 688819336